

PROBA ESPEZIFIKOA

2015eko PROBA

**ENPRESAREN
EKONOMIA**

PROBA

ERANTZUNAK





Azalpenak

Probaren iraupena: ordubete.

Azterketaren egitura eta parte bakoitzaren balorazioa:

- **2 galdera teoriko; guztira, 3 puntuko balioa.** Galdera bakoitzak, gehienez, 1,5 puntuko balioa izango du.
- **2 problema; guztira, 4 puntuko balioa.** Atal honetan, ikasleak 3 problemaren artetik 2 hautatu eta ebatzi beharko ditu. Problema bakoitzak, gehienez, 2 puntuko balioa izango du.
- **Test motako 10 galdera,** hiru erantzun aukeran baina erantzun zuzena bakarria izanik. Guztira, **3 puntuko** balioa izango dute. Erantzun egoki bakoitzari 0,3 puntu emango zaizkio; erantzun desegoki bakoitzeko 0,1 puntu kenduko dira, eta erantzun gabe utziz gero, ez da punturik kenduko. Atal honetan, dena den, azken emaitza ez da inoiz negatiboa izango.
- **Galdera teorikoetan eta problemetan atal bakoitzaren balorazioa adierazita dago, baita zuzentzeko irizpidea ere.**

GALDERA TEORIKOAK

1. Zer da langabezia-tasa? Nork kalkulatu du eta nola kalkulatu da?
(*definizioa puntu bat, eta nork eta nola 0,5 puntu*)
2. Azaldu ekonomia sozialistak dituen bi muga.
(*0,75 puntu muga bakoitzeko; gehienez, 1,5 puntu*)

PROBLEMAK

1. KANYON SA enpresak bizikletak egiten ditu, eta, produktua egiteko, gurpilak behar ditu. Horretarako, bi aukera ditu: enpresan bertan ekoiztea edo Taiwandik ekartzea. Datu hauek kontuan hartuta, zer erabaki hartuko du?
 - Taiwandik ekartzea: 10 € gurpil bakoitzeko
 - Enpresan bertan ekoiztea: 40.000 € balio duen makina bat behar da, eta gurpil bakoitzak 5 €-ko kostua du.
 - a) Zer salmenta-bolumen behar da gurpilak enpresan bertan ekoizteko erabakia hartzeko? (kontuan hartu bizikleta batek bi gurpil dituela) (*1,5 puntu*)
 - b) Irudikapen grafikoa (*0,5 puntu*)
2. ATXUKARRO SA altzairu-enpresak bere produktu baten amaiera-fasean ekoizturik erosten duen pieza bat erabiltzen du. Enpresan, batez beste, horrelako 4.000 pieza kontsumitzen dira 2 asteko epealdian. Hornitzaileari egiten zaion eskaera bakoitza 8.000 piezakoa izaten da, eta hornidura-epea 7 egun da. Bestalde, produktuaren ekoizpen-prozesuko arazoak saihestu nahian, enpresak 1.000 piezako segurtasun-stocka ezartzea erabaki du.



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO
HAUTAPROBAK 25 URTETIK
GORAKOAK

2015eko MAIATZA

EKONOMIA

PRUEBAS DE ACCESO A LA
UNIVERSIDAD PARA MAYORES
DE 25 AÑOS

MAYO 2015

ECONOMIA

Hau eskatzen da:

- a) Eskaera-puntua. (0,75 puntu)
- b) Biltegituriko batez besteko stocka. (0,75 puntu)
- c) Biltegian izandako mugimenduaren irudikapen grafikoa. (0,5 puntu)

3. GORIKO SA enpresak elektrotresnak ekoitzi eta saltzen ditu. Urtearen amaieran aurkezturiko balantzean, honako ondare-elementu hauek aurkeztu ditu:

1. Efektiboan dagoen dirua	2.000
2. Kutzako kontu korronteko dirua	25.000
3. Biltegiko izakinak	20.000
4. Tailerraren lokala	165.000
5. Makineria	6.000
6. 4 urtean ordaintzeko mailegua	60.000
7. Ekoitzitako elektrotresnak garraiatzeko kamioia	40.000
8. Bezeroei kobratu gabeko fakturak	3.000
9. Bazkideen ekarpenak	???
10. Hornitzaileei ordaindu gabeko fakturak	30.000
11. Erreserbak	71.000

Aurreko datuak kontuan hartuta,

- a) Egin ezazu enpresaren balantzea (puntu bat)
- b) Kalkulatu errotazio-funtsa (maniobra-funtsa), eta interpreta ezazu grafiko batez lagunduta (0,5 puntu maniobra-funtsaren kalkulua eta 0,5 puntu interpretazioa)

TEST MOTAKO GALDERAK

Biribil batez ingura ezazu aukera zuzena.

1. Zerga bat progresiboa da, baldin eta:
 - a. Zerga-oinarririk txikiena duena gehien ordaintzen duena bada.
 - b. Kuota zerga-oinarriarekiko alderantziz proportzionala bada.
 - c. Zerga-tasa zerga-oinarriarekin batera eta noranzko berean aldatzen bada.
2. Erantzukizun mugatuko sozietateen ezaugarria hau da:
 - a. Gutxienez hiru bazkide izatea.
 - b. Kapitala akziotan banatua izatea.
 - c. Bazkideek sozietatearen zorrerikiko erantzukizun pertsonala ez izatea.



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO
HAUTAPROBAK 25 URTETIK
GORAKOAK

2015eko MAIATZA

EKONOMIA

PRUEBAS DE ACCESO A LA
UNIVERSIDAD PARA MAYORES
DE 25 AÑOS

MAYO 2015

ECONOMIA

-
3. Enpresaren itopuntuak (errentagarritasun-atalasea) hau esan nahi du:
 - a. Enpresaren ekoizpen-jarduera txikia dela.
 - b. Itopuntuaren azpiko ekoizpen-bolumenekin enpresak galerak dituela.
 - c. Aurreko biak gaizki daude.

 4. Enpresaren kokapena honek baldintzatzen du, besteak beste:
 - a. lurzoruaren (orubearen) kostua.
 - b. Enpresaren izaera juridikoa.
 - c. Enpresako bazkideen bizilekua.

 5. Zenbait inbertsio-proiektu aukeran izango bagenu, BEG irizpidea aplikatuz, hau aukeratuko genuke:
 - a. BEG handiena ematen duena
 - b. BEG txikiena ematen duena
 - c. BEG berdin zero ematen duen proiektua

 6. AK SA enpresak inbertsio bat egin nahi du. Hasierako diru-jartzea 75.000 € da, eta kaxa-fluxu garbi hauek espero ditu: 10.000 €, lehenengo urtean; 20.000 €, bigarrenean; 45.000 €, hirugarrenean; eta 25.000 €, laugarrenean. Zein da inbertsio horren berreskuratze-epea?
 - a. 4 urte
 - b. 3 urte
 - c. 2 urte

 7. Errotazio-funtsa
 - a. Kanpo-finantzaketa duen aktibo ez-korrontearen zatia da.
 - b. Kanpo-finantzaketa duen aktibo korrontearen zatia da.
 - c. Aktibo korrontearen eta pasibo korrontearen arteko aldea da.

 8. Ingeles-akademia batek izan dezakeen ikasle kopururik handiena 720 bada, kopuru horri honela deitzen zaio:
 - a. Eskariaren elastikotasuna.
 - b. Eskari potentziala.
 - c. Merkatu-kuota.

 9. Langabezia-tasa % 24 izateak hau esan nahi du:
 - a. Langabetuen kopurua landunen kopurua baino % 24 txikiagoa dela
 - b. Herrialdeko biztanleen % 24 langabezian dagoela
 - c. 100 pertsona aktibotik 24k ez dutela lanik eta ez dutela lana aurkitzen

 10. Ondasun ekonomikoak hauek dira:
 - a. Praktikotasun handia eta askotariko erabilerak dituztenak.
 - b. Ia mugagabeak direnak eta behar ditugun beste daudenak.
 - c. Baliagarriak dira (beharrak asetzen dituzte), eta, gainera, urriak dira.



EBAZPENA

GALDERA TEORIKOAK

1. Zer da langabezia-tasa? Nork kalkulatu du eta nola kalkulatu da? Langabeen eta biztanleria aktibo osoaren arteko erlazioa da. Hau da, lan egin nahi duten ehun pertsonatik zenbatek ezin duten lan egin. Tasa horrek biztanleria aktiboaren barnean langabezia zenbat pertsona dauden neurtzen du, ehunekoetan.

Biztanleria aktiboaren inkesta (EPA). Hiru hilean behin, INEk inkesta bat egiten du 64.000 etxetan, enpleguari buruzko datuak biltzeko. Inkesta hori baliatzen da langabezia-datuak lortzeko. Lanbide (SEPE edo antzinako INEM) langabezia neurtzen duen erakundea da, eta erakundearen izena emanda dutenak soilik hartzen ditu kontuan. Hilero argitaratzen ditu bere datuak.

2. Azaldu ekonomia sozialistak dituen bi muga.


Aurreikuspen-akatsak: Ekonomiaren bilakaera erakusten duten zantzu errealek ez zuten —merkatu-ekonomian, prezioak edo salmentak dira horren adierazle, adibidez—, planifikatzaileek ez zuten ekonomiaren martxari buruzko informazio fidagarririk. Horregatik, ez zuten beti asmatzen aurreikuspenak egitean eta baliabideak esleitzean. Horren ondorioz, plangintzak ez ziren errealitateara egokitzen, eta erreakzio-ahalmena urria zen.

Pizgarririk eza: prezioak eta soldadak estatuak finkatzen zituenez, enpresek ez zuten elkarren artean lehiatzeko ahalgintza egiten, eta langileen artean desmotibazioa nagusitu zen.

Gehiegizko burokrazia: ekonomia-sistema kontrolatzeko behar zen aparatua administratiboa “buztinezko oinak zituen erraldoi” bihurtu zen, geldotasuna eta eraginkortasunik eza nagusi zirela.

PROBLEMAK

1.
$$\frac{40.000}{10 - 5} = 8.000 \text{ gurpil edo } 4.000 \text{ bizikleta}$$





a.- Eskaera puntua erabakitzeko, segurtasun-stocka izan behar dugu kontuan; baita hornidura-epean kontsumituko dituen unitateak ere. Beraz:

Bi astean 4.000 unitate kontsumitzen badira, zazpi egunean 2.000 kontsumituko dira.

Eskaera-puntua: hornikuntza-epean kontsumitutakoa gehi segurtasun-stocka
Eskaera-puntua : $2.000 + 1.000 = 3.000$ pieza


b.- Bi era kalkulatzeko:

eskaera zati bi gehi segurtasun-stocka
gehienezko stocka gehi gutxienezko stocka zati bi

$$\frac{8.000}{2} + 1.000 = 5.000 \text{ pieza}$$

$$\frac{9.000 + 1.000}{2} = 5.000 \text{ pieza}$$

c.- Adierazpen grafikoa



3.

AKTIBOA		ONDARE GARBIA ETA PASIBOA	
Aktibo ez-korrontea	211.000	Ondare Garbia	171.000
Eraikinak	165.000	Kapital soziala	1.000.000
Altzariak	6.000	Erreserbak	71.000
Garraio-elementuak	40.000	Pasibo ez-korrontea	60.000
Aktibo korrontea	50.000	Epe luzeko mailegua	60.000
Izakinak	20.000		
Bezeroak	3.000	Pasibo korrontea	30.000
Bankuak	25.000	Hornitzaileak	30.000
Kutxa	2.000		
AKTIBOA GUZTIRA	161.000	ONDARE GARBIA ETA	161.000



		PASIBOA GUZTIRA	
--	--	------------------------	--

b) Maniobra-funtsak enpresaren finantza-oreka zehazten du. Ondare garbiak gehi pasibo ez-korronteak aktibo korrontearen zati bat finantzatzen du.

Maniobra-funtsa = Aktibo korrontea – Pasibo korrontea = (Ondare garbia + Pasibo ez-korrontea) – Aktibo ez-korrontea.

Enpresa honen kasuan, hau da maniobra-funtsa:

Maniobra-funtsa = 50.000 – 30.000 = (60.000 + 171.000) – 211.000 = 20.000 euro

Aktibo ez-korrontea 211.000		Pasibo ez-korrontea ond. garbia 171.000
Aktibo korrontea 50.000	M F 20.000	
		Pasibo korrontea 30.000

Oreka finantzarioan dago. Epe laburreko ondasun eta eskubideekin epe laburreko galdagarriari aurre egin diezaioke, eta epe luzeko finantzazioak ia izakin guztiak finantzatzen ditu.

TEST MOTAKO GALDERAK

1. c) 2. c) 3. b) 4. a) 5. a) 6. b) 7. c) 8. b) 9. c) 10. c)

GALDERA	EZAGUTZA-ADIERAZLEA
Galdera teorikoak	
1	1.8
2	1.3
Problemak	
1	2.11
2	2.18
3	3.2, 3.3
Test motako galderak	
1	1.6
2	2.7
3	2.17
4	2.2
5	2.24
6	2.24
7	3.3
8	2.20
9	1.8
10	1.1